

xinple!

EUSKARA



AGOIZKO UDALA

20. zenb. 2020ko azaroa

ZERBITZUAK

Udaletxea 948 33 60 05

Euskara Zerbitzua 948 33 65 65

Kultur Etxea 948 33 66 90

Cederna Garalur 948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 33 40 95

Liburutegia 948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua 948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara 637 44 81 07

Dya 948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak 948 33 65 00

Udal Pilotalekua 948 33 61 64

Kirol Gunea 948 33 67 06



AURKIBIDEA

- UDALAK GIZATASUNA SUSTATZEKO KANPAINA ABIATU DU
IBILGAILUEN TRAFIKOA ARAUTU DA IKASTETXEKO SARRERAN
- UDALAK INSTAGRAM PROFILA SORTU DU
2.790 BIZILAGUN GARA
SIEMENS GAMESAK BEHIN BETIKO ITXI DU AGOIZKO LANTEGIA
- COVID-19AREN ERAGINA GUTXITZEKO ETA EKONOMIA BIZIBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK
- HEZKUNTZAK INSTITUTU BERRIA EGINEN DU AGOITZEN
IKASTETXEKO OBRAK
SKOLAE PROGRAMAN PARTE HARTZEA
- CEDERNA GARALURREK BILTZAR OROKORRA EGIN ZUEN AGOITZEN
2020KO AGOIZKO JAIK, BERTAN BEHERA
- AGOITZEK 36KO BIKTIMAK OMENDU ZITUEN
- PERTSONEN SEXU ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA
XIX. MENDEKO EMAKUMEARI BURUZKO HITZALDIA
SORGINAREN IRUDIA GAUR EGUN ARTE
- UDAL DERMIOKO IBILBIDEETAN BIDEZIDORRETAN MOTORREN JOANA-ETORRIA ERAGOZTEKO OZTOPOAK
FRANCISCO JAVIER OYARZUN BEKAK EMAN DIRA
ARTE PLASTIKOKO TAILERRA, UDAKO KULTUR EKIMENA
- ZINEMALDIK ESTREINATU ZUEN MIKEL ZABALZAREN HILKETARI BURUZKO DOKUMENTALA
SORTU DA HIDEA, AGOIZKO HISTORIAREN KULTUR ELKARTEA
KULTURREK AGOITZEN ERREPIKATU ZUEN
- AGOITZEK ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIK BIZI IZAN ZITUEN BERRIRO
KULTUR BALANTZEA
- HIZKUNTZEN EUROPAKO EGUNA
EUSKARA NORMALIZATZEKO PLANA 2020-2023 ONARTU DA
"KIROL ERREZETA" ITZULI DA
- AGOITZEK ERREMONTEAREN ETAPA BERRI BAT IREKI DU
FORU KOMUNITATEKO XV. ERREMONTE TXAPELKETA
"INDURÁIN" ETA "EMAKUMEEEN NAFARROAKO KLASIKOA" LASTERKETEK AGOITZ IGARO ZUTEN

xinple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zerbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.



UDALAK GIZATASUNA SUSTATZEKO KANPAINA ABIATU DU

«Honela nahi duzu Agoitz? Aski da». Agoizko Udalak abian jarri duen kanpaina berriaren leloa da, gizalegearen aurkako jokabideak desagerrarazteko eta herrikoak kontzientziatzeko, guztiok partekatzen dugun eta egoera onean mantendu behar dugun bizikidetzaren espazioa dela Agoitz.

Kanpainaren helburua da herriko kale, plaza edo hiri altzariterian gertatzen diren bandalismo-ekintzak gutxitzea, eta horretarako kalean utzitako bolumen handiko hondakinak, txikizioak, zikinkeria eso pintadak agertzen dituzten kartelak baliatu dira. Halaber, tamaina handiko materialak biltzeko doako zerbitzua erabilera sustatu nahi da, eta gizarte, oro har, gizalegezko eta elkartasuneko jokabide zuzenez kontzientziatu nahi da.

Udalak deitoratu egin ditu gertakari etengabe eta desatsegin horiek, eta gogorarazi du ondare publikoa herritarren ondasuna dela, eta, era berean, azpimarratu du garrantzitsua dela ondare hori zaintzea guztion gozamenarako. «Jakinarazi behar dugu mantentzeko eta kontserbatzeko kostua handia dela», adierazi du Angel Martin Unzué alkateak. Ekintza bandalikoaren konponketek kostu ekonomiko handia dute, eta udalaren aurrekontuak ezin du jasan etengabeko diru-jario hori. Gainera, herria zikina, hautsia eta desordenatua delako irudia ematen da. Honela nahi duzu Agoitz? Aski da.

IBILGAILUEN TRAFIKOA ARAUTU DA IKASTETXEKO SARRERAN

Ikasturtea hasi dela ikusita, Agoizko Udalak eta San Migel Ikastetxe Publikoak zenbait neurri hartu behar izan dituzte eskola-esparruaren inguruko trafikoari dagokionez. Osasun-erakundeek COVID-19ren aurka ezarritako protokoloa dela eta, ikastetxe sarrera-irteerak aldatu egin dira. Ikasturte osoan zehar, Iturramako kalean ikasle eta

familia asko topatuko dira, bere gain hartzen baititu eskola-esparrurako lau sarbideetako hiru.

Goizeko 9:00etan, 450 ikasle inguru joaten dira ikastetxera oinez, gehienak familiako batekin, eta baita 70 irakasle ere. Horrek esan nahi du ia 600 pertsona sartzen direla 8:50etik 9:05era



bitartean. Antzeko zerbait gertatzen da 14:00etan, ikasle asko eskola esparrutik ateratzen da, eta zain dituzte familiakoek dagozkien sarbideetan.

Errealitate zaila bizitzen ari gara, eta egunero roketasunak egoera bakoitzean nola jokatu erakusten digu. Ikasturtea hasi eta lehen egunetan, ikasleentzat eta haien familientzat benetako arriskua sortzen duten hainbat egoera errepikatu dira, une zehatz horietan dagoen trafikoa dela eta.

Horregatik, eskola egunetan Iturramako kalean trafikoa mozteko erabakia hartu da, ordu hauetan hain zuzen ere: 08:50etik 09:10era eta 13:50etik 14:10era eskola-egunetan. «Neurri honek inguruko bizilagunei bereziki eragin diezaiekeela uste dugu, baina ulertuko delakoan gaude, beharrezkoa baita guztion segurtasuna bermatzeko», adierazi dute.

Gainera, «Ikastetxera oinez joatera animatu nahi dizuegu, segurtasuna gailendu behar baita beste ezerean gaintetik».



UDALAK INSTAGRAM PROFILA SORTU DU



Agoizko Udalak Instagramen duen profil ofizialean sartzeko, nahikoa da bilatzailean Agoizko Udala jartzea. Erabiltzaile-profila hau da: @ayuntamientoaioiz_agoizkoudala.

Sare sozialetan egoteaz gain, gogorarazi nahi dugu Udalak hileroko argitaratzen duela, digitalki eta duela lau urtetik hona, hileroko buletin bat, herritarrei informazioa bidaltzeko, eta Xingle! Aldizkaria, urtean hiru zenbaki. Beste komunikazio-kanal eraginkor batzuk udalaren webgunea eta gailu mugikorretarako aplikazioa dira. Azkenaren bidez, bizilagunek bide publikoan izaten ahal den edozein gertakari berri eman dezakete, edo kexak edo iradokizunak helarais ere. Plataformaren bidez herritarrak inplikatzeko dira Agoizko bizitzan, zerbitzu publikoak hobetzeko.

Udal honen apustua beti izan da egiten dituen ekintza guztiak gardenak izatea, eta herritar guztiei unean-unean informazioa ematea.

Facebook, APP-a, web orria, udal buletinak, Xingle! aldizkaria eta orain Instagramen ere bai. Agoizko Udalak bere komunikazio-kanalak zabaltzeko, eta profil ofizial berri bat ireki du erreferentziarako sare sozialetako batean, Instagramen.

Instagram gazteen sare sozialik gogokoenetako bat da, eta, beraz, herritar gehiago egonen dira Udalaren jardueraren egunean. Udalak herritarrekin dituen hedapen-bideak zabaltzea eta optimizatzea da lehenetako informazio instituzionala modu dinamiko eta hurbilean irits dadin, jarduera politikoa alde batera utzita.

SIEMENS GAMESAK BEHIN BETIKO ITXI DU AGOIZKO LANTEGIA

Ekainaren 30ean Siemens Gamesak Agoitzen zuten lantegia itxiko zuela ustekabearen iragarri zutenetik, hainbat mobilizazio, bilera eta saiakerak egin dira egunero Agoizko lantegia salbatzeko, eta abuztuaren 8an plantillak behin betiko itxeko aurkeztutako espedienteak onartu zuten.

Lantegia itxiko zela jakin bezain laster, langi-

leek hainbat ekimen bultzatu zuten kontsultaldiren bitartean enpresaren erabakiaren aurka borrokatzeko, besteak beste, zenbait greba egun eta manifestazio bat Iruñean. Enpresa batzordeak beti uste izan du Gamesaren itxieraren atzean lantegia beste leku batera eramateko asmoa zegoela, izan ere, Agoizko zentroa oso lehiakorra zen eta 2021era arteko

2.790 BIZILAGUN GARA

Udalak 2020ko urtarilaren batean erroldatutako kopuru ofiziala onartu zuen. Iazko datuekin alderatuta, 90 pertsona gehiago bizi dira herrian, eta guztira 2.790 gaude erroldatuta, 1.418 gizon eta 1.372 emakume.

Iaz, 23 heriotza eta 26 jaiotza izan ziren. Gainera, 2019an 263 pertsonak eman zuten alta beste herri batzuetatik, eta 170 pertsonak baja eman zuten. Azkenik, herri barruan bizilekua aldatu dute 34 herritarrek, 22 gizonetakoek eta 12 emakumetakoek.



lan-karga zuen. Aipatutakoez gain, batzordea bildu zen Maria Chivite Gobernuko presidentarekin, Unai Hualde Parlamentuko presidentarekin, Arartekoarekin eta Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi guztiekin.

Uztailaren 2ko ohiko osoko bilkuran ehun pertsona inguruk parte hartu zuten, eta Agoizko

Udalak premiazko mozioa aurkeztu zuen gaitzerrendan. Horren bidez, aho batez erabaki zuen planta eolikoaren itxiera baztertua eta Foru Gobernuari egoera iraultzeko konpromisoa eskatzea. Era berean, enpresa-batzordearen esanetara jarri zen, antolatzen zituen mobilizazio guztiak babesteko, eta herritarrek haiekin bat egitera gonbidatu zituen. «Enpresaren argudioak aitzakia hutsak direla uste dugu, Siemens Gamesa etekinak ematen dituen konpainia delako, eta argi eta garbi deslokalizazio bortitz ezkutatzen duelako, ekoizpena beste herrialde batera eramateko. «Berriz ere, erabaki horren bidez, Agoitz eta eskualdea egoera ahul batean gelditzen da, sozialki, ekonomikoki zein industrialki», adierazi zuen Angel Martin Unzue alkateak. Ondoren, Legebiltzarra adierazpen instituzional bat onartzeko ekimena jakinarazi zuen, eta Manu Ayerdi Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen. Langileen



izenean, Alfonso Poyo enpresa-batzordeko presidentek Udalaren eta herriaren babesa eskertu zuen.

Uztaileko azken astean, lantegiko langileek mobilizazio ugari egin zituzten lantegiaren itxieraren aurka: sinadurak bildu, elkarretaratzeak egin, Iruñera oinez joan... Eta 25ean Irati Bizirik plataformak manifestazio handi batean bildu zituen Agoitzen mila pertsona baino gehiago, Siemens Gamesaren plantillari babesa eman eta Administrazioak etengabe ahaztutako eta zigortutako herri eta bailaretan bizitzeko eta lan egiteko ahalmena defendatu zutenak.

Bien bitartean, Nafarroako Gobernuak, Manu Ayerdi Garapenerako kontseilariaren bitartez, oso epel hitz egin zuen Alemaniako multinazionalaren erabakiari buruz: «Sentitzen dugu Siemens Gamesak Agoizko lantegia itxeko hartutako erabakia, baina ezin dugu enpre-

sa iritziz aldatzera behartu. Enpresa iritziz aldatzeko konbentzitzen saiatuko gara», adierazi zuen Ayerdi. Maria Chivite presidentek, berriz, Siemens Gamesari alternatibak proposatu zizkiola esan zuen, baina «enpresak ez du hitz egin nahi izan». Lantegia desleialtzat jo zuen eta «gobernu honek, besteak beste, laguntza publikoetan jasotako bi milioi euro inguru itzultzeko eskatuko du, laguntza horien baldintzak ez betetzeagatik» adierazi zuen.

Abuztuaren 8an, Siemens Gamesak Agoitzen duen plantillaren gehiengoak batzarrean erabaki zuen [148 aldeko boto, 37 kontrari eta 2 boto zuri] enpresak lantegia itxeko aurkeztutako espedienteak onartzea. Akordioak 55 urte edo gehiago dituztenentzako aurre-erretiroen plan bat jasotzen du. Halaber, kaleratzeagatik kalte-ordaina adostu zen, 45 eguneko lan egindako urte bakoitzeko [20 egunetik gorakoa].



COVID-19AREN ERAGINA GUTXITZEKO ETA EKONOMIA BIZIBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, 13,5 milioi euro ordaindu zizkien Nafarroako udalerriei pasa den irailean, COVID-19ren eraginari aurre egiteko ekonomia suspertzeko neurriak har zitzaten. Toki entitateen honako inbertsio hauek finantzatu daitezke funts horien bidez: energia-eraginkortasuna, hiri-mugikortasun jasagarriarekin, udal-erakinen egokitzapenarekin, banda zabaleko konektibitatearekin eta uraren erabilerekin eraginkortasunarekin lotutakoak.


Jarduera horiek, udal-azpiegiturak eta -zerbitzuak hobetzeaz gain, bat egiten dute Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Itunarekin eta 2030erako Garapen Iraunkorren Helburuekin, eta tokiko sektoreak klima-alaketaren aurkako borrokan eta gure herri eta hirietako isurketak murrizten laguntzen du.

Udalek 2020ko martxoaren 14tik 2021eko irailaren 30era bitartean egin beharko dituzte

inbertsioak. Gainera, horietan, udalerriri onuradunak gutxienez %15eko kofinantzaketak izatea eskatzen da, eta horrek eragin biderkatzailea izango du tokiko ekonomietan. Finantzatu daitezkeen zer inbertsio mota diren zehazten duen gida bat egin da; horien artean, mugikortasun iraunkorari, banda zabalarri edo

eraginkortasun energetikoari buruzkoak nabarmentzen dira.

272 udalerrien artean 13,5 milioi euro banantzeari dagokionez, biztanle kopuruaren arabera kalkulatu da. Agoitzek 2.695 biztanle zituen eta 86.528,20 euro jaso zituen.



HEZKUNTZAK INSTITUTU BERRIA EGINEN DU AGOITZEN

Hezkuntza Departamentuak institutu berri bat eraikiko du Agoitzan, San Migel ikastetxe publikoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren 160 ikasleak hartzeko. Zentroa San Migel ikastetxe publikoaren ondoko lur-zati batean eraikiko da, gaur egun erabiltzen ez den futbol zelaiaren gainean. Horrela, egungo zentroaren espazio arazoa konponduko da, Agoizko Udalak aspaldi eskatzen zuten moduan.

Proiektua kontratatze lizitazio iragarkia uztailearen 17an argitaratu zen Nafarroako Gobernuaren kontratazio atarian.

«Zentro berria eraikuntze jasangarriko irizpideei jarraikiz altxatuko da San Migel ikastetxe publikoa dagoen ondoko lurzati batean, herriko Udalak utzitako lurretan. Eraikinak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi lerro izanen ditu», azaldu du Foru Gobernuak ohar batean.

Institutu berriak hamar gela arrunt, lau banaketa eta curriculum bereziko unitaterako gela bat izanen ditu, baita informatika, musika, plastika, zientzia-laborategia, teknologia-tailerra, liburutegia eta irakasleek erabiltzeko gainerako espazioak ere.

IKASTETXEKO OBRAK

Udan hainbat hobekuntza lan egin dira ikastetxean. Hiru enpresa aritu dira proiektu gauzaten: bainugelak; hodiak eta berokuntza; eta kanpoko arotzeria eraberritzea. Ekintza horietako bi Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutakoak dira, eta hirugarrenak 70.000 euroko finantziarazioa du, EH Bilduk aurkeztutako eta Parlamentuak onartutako aurrekontuen zuzenketa baten bidez.

Construcciones Leachek komunak berritzeko obrak egin ditu (75.000 euroko aurrekontua); Fontanerira Tabarrek, berriz, beroketa sistematikoa hoditeria nagusia konpondu du (25.000 euroko kostua); eta Distribuciones Renoven enpresak ikastetxearen kanpoko arotzeriaren aldatu du (43.000 euro). Lanek, guztira, 144.000 euroko kostua izan dute, eta Angel Martin Unzue alkateak adierazi duenez, «Nafarroako Gobernuak 10.000 biztanletik beherako erakundeentzat duen funtsaren 26.000 euroekin ordainduko dugu diruz laguntzen ez dena».

1977an inauguratu eta 1996an handitu zen eskualdeko kontzentrazio ikastetxeak beharrezkoa zuen itxuraldatze hori.

PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

Obraren proiektua (215.575 euro, BEZa barne) aurkeztu nahi zuten enpresek abuztuaren 17ra arte aurkeztu ahal izan zituzten proposamenak.

Proiektua idatzi ondoren, Hezkuntza Depar-



tamentuak Agoizko Udalarik bidaliko dio, obralizentzia eta jarduera sailkatua izapidetzeko, eta, ondoren, dagozkion obrak lizitatuko ditu.

Aurrikusita dago, ezarritako epeak betez gero, proiektua idatzita egonen dela urtea amaitu baino lehen.

SKOLAE PROGRAMAN PARTE HARTZEA

Nafarroako 26 ikastetxe, publikoak eta itunpekoak, 2020-2021 ikasturte honetan, sartu dira Skolae hezkidetzaren programan. Horietatik 24 Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei dagozkie, eta bi Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloak dituzten ikastetxeei. Horien artean Agoizko San Migel ikastetxea dago.

Nafarroako hezkuntza-sistemari ikastetxeak hezkidetzaren zentro bihurtzeko beharrezko baliabideak ematea proposatu du Skolae. Programa hau kalitatezko hezkuntza inklusiboaren funtsezko elementu gisa proposatzen da. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren proposamenak ikastetxearen zein ikasgelaren hezkidetzakudeaketan eragiten du, berdintasunaren aldeko konpromisoa eta erantzukizuna bermatuta.

Skolae programak planteatzen duen helburua da behar diren baliabideak ematea Nafarroako unibertsitatez kanpoko sistema hezitzaileko irakasle guztiek beharrezko gaitasun profesionala eskura dezaten, legeek ikaslearen garapen integralari buruz ezartzen dituzten eskakizunak betetzeko;

hau da, ikasleek genero-identitatea alde batera utzita berdintasunean bizitzeko gaitasunak gara ditzaten.

26 ikastetxe gehiago izanen dira, orain arte zeuden etapa eta titulartasun desberdineko 193 ikastetxeei gehitzeko. Horietan, 3.633 irakasle lan egiten dute, 2017-18 ikasturte-tik hasi eta prestakuntza-prozesua gainditu dutenak edo amaitzen ari direnak.

EMOZIOZKO HEZKUNTZA.

Nafarroako hamabi ikastetxek, horien artean Agoizko San Miguel ikastetxeak, proiektu pilotu batean parte hartuko dute ikasturte honetan, ikasgeletan hezkuntza emozionala sustatzeko. Laguntza Programaren barruan, helburua ikasleek, irakasleek eta ikastetxe-tako komunitate osoaren ongizate emozionala bilatzea da. Proiektu pilotu hau abian jartzea eraldaketa-prozesu pedagogiko batean sartzea ardatz eta hobekuntza-proposamen gisa dute ikastetxeei zuzenduta dago, inplikazioak hezkuntza-komunitate osoa barne har dezaten, bere nortasunean eta hezkuntza-proiektuan eragina izan dezaten.

CEDERNA GARALUREK BILTZAR OROKORRA EGIN ZUEN AGOITZEN

Joan den uztailearen 22an, Cederna Garalurrek elkarrekin Agoizko Kultur Etxean egin zuten Batzar Nagusia, elkarrekin azken urteotan lortu duen finantza egonkortasuna egiaztatu zuten; hari esker, kontuen egoera positiboa da orain. Ibon Mimentza Cederna Garalurreko zuzendari kudeatzailearen hitzetan, «Egoera honek proiektu propio ambiziozkoak martxan jartzeko aukera emango digu, Nafarroako Mendialdeko behar estrategikoekin bat datozenak».

Angel Martin Unzue agoizko alkateak eman zion hasiera bilkurari, eta eskerrak eman zituzten Elkarteari herria bera eta Siemenseko

langileak babesteko asmoarekin Batzar Nagusia herrian bertan egiteagatik.

Ondoren, Patxiku Irisarrik, Cederna Garalurreko presidentea, Batzar Nagusia aurkeztu zuen, eta nabarmendu zuen Cederna Garalurreko Nafarroako Mendialdean oso errotuta dagoen erakundea dela, eta teknikariaren eta elkartekideen arteko lankidetzak lurraldearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatu duela. Berehalako erronken artean, Patxiku Irisarrik 2021-2027 Landa Garapenerako Programa berria nabarmendu zuen, eta, batez ere, Internetarako konektibitatea, datozen urteetarako funtsezko ardatz estrategiko gisa.



2020KO AGOIZKO JAIK, BERTAN BEHERA

COVID-19ren pandemiak mundu osoan bizi dugun egoera ezohikoaren ondorioz, Agoizko Udalarik 2020ko jaiak (tradizioz abuztuko bigarren igandean ospatzen dira) ofizialki bertan behera utzeko erabaki zail eta tristea hartu zuen.

Udalak bere komunikazio-kanalen bidez jakitera eman zuen erabakia. "Udal talde osoak sakon aztertu eta hausnartutako neurria da, eta erabaki aurretik egoera posible eta ertz guztiak baloratu dira. Horien artean, segurtasuna, gune publikoetan jende asko biltzen duten ekitaldiak egiteko orduan. Gure ustez, osasuna da gaur egungo lehentasuna, eta, horrenbestez, gure egitekoa da gure esku dauden neurri guztiak hartu eta zorroztea, urtero gure herrira etortzen diren herritar eta bisitari guztiak babesteko.

Gure jaiak ezin dira ospatu egun duten formatuagatik, ez baitira ematen osasun-agingarriek eskatzen dituzten bermeak. Hori dela eta, uste dugu ospakizuna bertan behera

uztea dela koherenteena eta zentzuzkoena, gaitza ez zabaltzeko hartutako prebentzio-neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezkeen; izan ere, horiek ospatzeak pandemia berriz sortzea ekar dezake, beharrezko segurtasun-neurriak mantentzea zaila denez birusaren zirkulazioa berriz aktibatzearen arriskua dagoelako.

Baina 2021 gure zain dago, eta Agoizko Udalean lanean jarraitzen dugu datorren urtean kultur eta jai-ekitaldiak betetako programazio zabal batez gozatu ahal izan dezagun. Eta, batez ere, gure jai maiteak ahalik eta gehien bizi ditzagun osasun segurtasun osoz.

Azkenik, Agoizko guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu erabaki zail hau ulertzeagatik, eta,aldi berean, animo-mezu bat helarazi nahi diegu jaiak eragile ekonomikoa eta urteko sostengaren parte garrantzitsu bat dituzten guztiei. Gogoan izan birusa ez dela desagertu, gure artean jarraitzen duela eta kutsatzeko arriskua benetakoa dela. Horregatik, erantzukizunera

Bestalde, Ibon Mimentzak azaldu zuenez, Elkarrekin banda zabaleko lantalde bat sortu du 2020an. Talde hori Zuzendaritza Batzordeko kideak eta erakundeko teknikariak osatzen dute, eta helburutzat du toki-erakundeei gai horri buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, eta operadoreekin eta Nafarroako Gobernuarekin solaskide izatea, Nafarroako Mendialdean banda zabala eta telekomunikazioak hedatzen laguntzeko. Ildo horretan, azken hiru hilabeteetan lurraldean toki-erakundeei zuzendutako hitzaldi batzuk ematea aurreikusita da.

Banda zabaleko lantaldeaz gain, beste talde eta proiektu batzuk sortu dira: nekazaritzako elikadurako lantalde berri bat; landa eremuko jasangarritasuna bultzatzeko lankidetzaren proiektu bat, TEDER partzuergoekin eta Erdialdeko Eremuarekin elkarlanean garatuko dena eta Alkateen Ituna delako ezartzea helburu duena; eta komunikazio proiektu bat ere, Nafarroako Mendialdea balioesteko (lan eta bizitzeko lekua, bizi-proiektua gauzatu ahal izateko).

Ez ziren ahaztu elkarrekin parte hartzen duen eskualdeko proiektuak, hots, Uraren Bailarak, Iratiko Bide Naturala, Zangoza Eskualdeko Ondarearen Estrategia, Mendialdea Elikadura edo Pirinioetako Plana ezartzeko lankidetzaren (Pirinioetako Mahaia, Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsaren artekoa).



AGOITZEK 36KO BIKTIMAK OMENDU ZITUEN

1936ko irailaren 18ko gauean faxistak Agoizko etxe batzuetan sartu ziren eta hamaika gizon eraman zituzten. Eloko Teilerian hil zituzten. Hurrengo hilabeteetan, herriko eta Longida ibarreño beste hamasei pertsona gehiago sartu ziren zerrendan.

84 urte geroago, Agoitzek omenaldia egin zien 27 fusilatu horiei eta 1936ko kolpearen ondoren errepresaliatutako pertsona guztiei. Agoitzen 40 biktima baino gehiago daude, estrategia faxistak indarkeria modu askotara erabili zuelako: emakume errepresaliatuak, maisu araztuak, haur lapurtuak, kartzelak, erbestea, kontzentrazio-esparruak, desjabetzeak, eskarnio publikoa, errizino-olioa...

Betiko emozio berberarekin eta Kovid19ak erangindako osasun-krisiak eskatutako neurriekin, jende ugari bildu zen merezitako omenaldia emateko, duela urte batzuk biktima horien omenez egindako Memoriaren Parkeko oroitariaren ondoan antolatutako ekitaldi hunkigarri eta xume batean.

«Inoiz ahaztu behar ez dugun data da hau, hemen elkartzen gara, Memoriaren Parkean, Gerra Zibilaren eta frankismoaren errepresio krudelaren biktima guztiak gogoratzeko. Hori xe da topaketa xume baina hunkigarri honen helburua, errepublikanoen legezketasuna eta gizarte justu eta demokratikoago bat defendatzeagatik errepresaliak jasan zituzten guztien oroimena omentzea» adierazi zuten ekitaldian Angel Martin Unzue agoizko alkateak eta Joseba Corera Kultura zinegotziak,

gaztelaniaz eta euskaraz, hurrenez hurren.

Fusilatuak, Gurseko eremuan errefuxiatuak, irakasleak eta errepresaliatutako emakumeak. Haren oroimena ez dadin gehiago isilik egon, biktima guztien izenak txistu doinu batez joz joan ziren, eta, ekitaldian, kontsolamenduzko besarkada zabaldu zitzaizen haien familiei, errepresio gogorra jasan baitzuten. «Trantsizioaren izenean ezarritako ahanzturarekin eta isiltasunarekin amaitu behar dugu. Ahanzturaren eta oroimen ezaren zulo beltzak, diktadurak bultzatutakoak, Memoriaren Leku bihurtu behar ditugu: hauxe bera, esaterako, edo iazko abenduan Eloko Teleria Parkean inauguratu zena» nabarmendu zuten alkateak eta zinegotziak.

Agoitzek defendatu eta lan egin zuen bereak hil zituzten tokia duintzeko, eta, ildo horretan, eskerrak eman zituzten «Josemi Gaston Memoriaren Nafarroako Institutuko zuzendariaren adoreaetik eta Teileria Ahaztuak elkartearen ahalegin nekazinatik eta lanagatik». Errepresioaren biktima izan ziren familiei babesa berretsi zieten, eta Udala haien esanetara jarri zen, kausa memorialistarekiko konpromisoa berrituz.

«Agoitzek eskua luzatzen dizue. Eta ez dezala inork ahaztu: errepresio frankistaren biktima guztien oroimena berreskuratu behar dugu, bere delitu bakarra justizia eskatzea izan baitzen, eta bere arma bakarra, mundu hobearekin posible izateko itxaropena».

Agoitz, bihotza eta oroimena, bat eginik, Maitelacabek eta Leire Unzuek ahotsa eta pianoaren soinua jarri zuten ekitaldi hunkigarrian. Aurrekua eta loreak ere, omenezko monolitoaren aurrean.

IZEN-ABIZENAK

FUSILATUAK. Tirso Aldaz Jaurrieta, Antonio Arlegui Arraiza, Valentín Carlos Beroiz, Leocadio Díez Equisoáin, Miguel Erdozain Bravo, Pablo Gastesi Expósito, Martín Gil Isturiz, Quiterio Gil Isturiz, Sergio Ilarraz Villanueva, Mariano Inda Navaz, Manuel Indart Itoiz, Martín Iribarren Soro, Santos Itarte Nuín, Jaime Jiménez Arzo, Teodosio Eugenio Larramendi Recalde, Aurelio León Inda, Jaime León Inda, José Migueliz Itoiz, Bibiano Nagore Vilches, Fernando Navarro Tejada, Leandro Villafranca Los Arcos, José Villava Ripodas, Zacarías Bengoetxea Ruiz, Julio "el cartero", Benigno Echeverría, Felipe Reta eta Pablo Viscarret Oroz.

GURSEN ERREFUXIATUTAKOAK. José Etxebarria Belaskoain, Baldomero Ilzarbe Jaúregui, Rafael Urdiroz Apezarena eta Esteban Usunariz Vicente.

IRAKASLEAK. Valentín Ardanaz Miguelena, Isidora Cía Ros, Vicente Navarro Ruiz, Paula Huici, María Luisa Jiménez Vergara eta Adela Machinandiarena.

EMAKUME ERREPRESALIATUAK. Domitila Arbeloa Zalba, Isidora Arregui, Fani Díez, Pilar Gastón, Cristina Roncal, Patricia Mateo eta Josefa Vicente.



PERTSONEN SEXU ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

LGTBI pertsonen sexu-askapenaren aldeko nazioarteko eguna dela eta, Agoizko Udalak adierazpen bat onartu zuen ekaineko osoko bilkuran, mugimendu hori osatzen duten hainbat kolektibo eta pertsonen borroka luze eta estimaezina aitortzeko. Beren egunerokotasunean, eta diskriminazio mota oro ezabatzeke lanean, pertsona horiek funtsezko ekarpena egiten jarraitzen dute benetan bidezkoa, berdintasunezkoa eta feminista den gizarte bat eraikitzeko.

Agoizko Udalak pertsona guztien-tzako eskubide guztiak bermatzeko eta LGTBI bezalako kolektibo ahuleneke eskubide horiek izan ditzaten bereziki zaintzeko ardura jasotzen du mozio honetan. Era berean, zera dio: «Covid-19-ren garaian egin dezagun: krisia ezin da aitzakia



izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude «normaltasun berri» hori garai berri bat izan dadin, euskal gizarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat».

Udalak, gainera, LGTBI pertsonen eskubideekiko urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berresten du, ez soilik adierazpen gisa, baizik eta politika zehatzak eginez eta giza baliabideak, baliabide teknikoak eta ekonomikoak konprometuz, mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkariekin adostutako ekintzak abian jartzeko.

Oinarritzko giza eskubideez ari gara, norberaren nortasuna definitzeko eta askatasunean bizitzeko eskubideez.

XIX. MENDEKO EMAKUMEARI BURUZKO HITZALDIA

Covid-19 pandemiak sortutako osasun krisialdia dela eta, hainbat hilabetez ez da kultur jarduerarik izan espazio itxietan. Aitor Iribarren Gonzálezek Aurelio León aretoan emandako hitzaldia izan zen epealdi horri bukaera eman zion lehenengo aktibitatea. Segurtasun eta higiene protokolo zorrotzari eutsiz, jende ugari hurbildu zen agoizkoaren azalpenak entzuteko, XIX. mendeko emakume ardatz hartuta. Hitzaldian, XIX. mendeko emakumeen diskurtsoen eraketan parte hartu zuten faktore soziohistorikoak aztertu ziren: etxeko diskurtsoa (kontserbadorea, katolikoa, «etxeko aingeruaren» idealaren defendatzailea) eta diskurtso iraultzaileena (emakumeen emantzipazioa, ahalduntzea). Ho-rrretarako, Aitorren hitzetan, «Ikuspegi historiko eta sozial bat hartu da, mende

zehir genero diskurtso ezberdinak nola erailki diren ulertzea ahalbidetzen duena. XIX. mendeko emakumei buruz idatzi denaren

panoramika zabalagoa erakutsi nahi da, ez bakarrik idazketa nabarmen kritikofeministara mugatzen den panoramika».



SORGINAREN IRUDIA GAUR EGUN ARTE

Amaia Nausia Pimulier Historian doktoreak hitzaldi interesgarri bat eman zuen, zeinetan

sorginengan pentsatzean irudikatzen ditugun ezaugarri guztiak banan-banan desmuntatu



zitu. Sorginen inguruan sortutako mitoari buruzko hainbat zalantza argitzeko aukera izan zen ere; honakoak, besteak beste: Zergatik jazarri zituzten batez ere emakumeak? Zergatik ziren gehienak alargunak, zaharrak? Zeri egozten dizkiogu botereak? Hitzaldian, gainera, azaldu zen zergatik pertsona guztiok dugun sorginari buruzko irudi bera, bakarrik bizi zen emakumea, adinekoa, itsusia eta botereduna, alegia. Eta ezarritako arauetatik irteten zen emakumea kontrolatu eta zigortu beharreko elementu subertsibotzat nola hartzen zen aztertu zen. Hori izan zen "sorgin ehizak" bezala deskribatu zuena, "Noski ez zutela sorginkeriarik egiten, ez zuten men egiten eta status quoa arriskuan jartzen zuten, besterik ez", gaineratu zuen Amaiak.

UDAL DERMIOKO IBILBIDEETAN BIDEZIDORRETAN MOTORREN JOANA-ETORRIA ERAGOZTEKO OZTOPOAK

36/1994 Foru dekretuaren 11. artikulua honela dio hitzez hitz: "Debekaturik dago motoredun ibilgailurik landetan zehar ibiltzea, errepideetatik kanpo edo bi metro baino zabalera txikiagoko landabideetan, suebakietan edo zura ateratzeko pistetan barna. Era berean, ez da onartuko Administrazioak espresuki debekatutako beste landa-bide edo pistetan barna zirkulatzea, bi metrotik goitiko zabalera izanagatik ere".

Agoizko Udak zenbait bidetan eta Iratiko interpretazio-ibilbidean seinaleak jarri zituen, motorrak bertatik ibiltzea debekatzeko. Hala ere, ikusten ari gara araudia bete gabe jarraitzen dela eta seinaleztapenak ere kendu direla.

Neurri hori betetzeko beste urrats bat eman eta, inguruko bidezidor eta bideetan hesi moduko egurrezko hesolak jartzen ari dira, oinezkoentzako eta bizikletentzako soilik diren pasealekuak sortuz. Berriz ere errespetua, gizalegea eta lankidetzaren eskatzen ditugu.

ESKERRAK BIDEAK GARBITZEN LAGUNDU DUTEN BOLUNTARIOEI Agoizko Udak eskerrik beroenak eman nahi dizkie azken hilabeteetan gure inguruko mendietako bidezidor batzuk garbitzen, ibilbideak markatzeko identifikazio-seinaleak jartzen eta herriko bidezidor ezberdinetan hesolak jartzen lagundu duzuen guztiei, ibilgailu motordunen joan-etorriek bideak honda ez ditzaten.

Benetako pribilegioa da pertsonen lankidetzaren desinteresatua izatea, herrientzat hain onuragarria eta garrantzitsua den zerbait mantentzen laguntzen baitute, hala nola beren ingurumen-ondarea. Auzolanean egindako lan horrek, gainera, lan komunitarioko metodo zahar baina beharrezko horri eusten dio, herritarrek elkartzen dituen.

Orain, mendizaleek, kirolariek eta mendizaleek guzuz hauetaz gozatzeko aukera izango dute, sastraka ibilbide ireki eta garbietan zehar. Eskerririk asko bihotzez.



FRANCISCO JAVIER OYARZUN BEKAK EMAN DIRA

Agoizko Kultur Etxean Bilketak banatu zituen arte-irakaskuntzarako Francisco Javier Oyarzun bekak (XI. Edizioa). Edizio honetan, 21 beka eman dira, guztira 50.560 euro egiten dutenak. Diru-kopuru hori urtetik urtera handitzen joan da, oztopo asko eta laguntza falta izan bada

ere: lehenengo edizioan 9 beka banatu ziren, 14.812 euro egiten zutenak. Denboraldi honetan (hamaika edizioetan) 196 beka eman dira guztira, 337.892 euroko egiten zutenak. Bekak Nafarroan bizi diren 30 urte arteko gazteen ztat dira.

Aurtengo edizioan, onuradunen artean Leire Unzu Villanueva 24 urteko agoizkoa dago. Gaztela eta Leongo Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikaslea, Leirek interpretazio-masterra egiten ari da saxofoi solista espezialitatean. Zorionak eta zorte on!

ARTE PLASTIKOKO TAILERRA, UDAKO KULTUR EKIMENA



Patxi Huarte Alemanek «Udan Plastikatzan» izenburupean eman ohi duen udako tailerrak kokalekua eta izena aldatu zituen aurten. COVID-19k jardueraren aire zabalean egitea behartu zuen, eta horren helburua liburutegiaren atzeko patioan mural kolektibo bat sortzea zen. Grafiti & mural «tailerrean 5-12 urteko hogeitaz gazte hartu zuten parte, eta nahiko degradatuta eta sasiz beteta zegoen horma bat berreskuratu eta apaintzeko balio izan zuen. Hainbat teknikaren bidez, murala adinaren arabera segmentatutako bi taldetan margotu da. Bost goizetan, txikiak prozesuaren fase guztiak osatu dituzte. Hala, pareta inprimazio zuri batekin prestatu zuten, eta, ondoren, brotxak, pintzelak, espreiak eta txantiloak erabili zituzten klarionaz markatutako konposizioa margotzeko.

Orain, liburutegia bisitatzen duenak horma-irudi ikusgarri bat ikusi ahal izanen du atzeko beiraketatik, alaitasunez ikastera.

ZINEMALDIK ESTREINATU ZUEN MIKEL ZABALZAREN HILKETARI BURUZKO DOKUMENTALA

Mikel Zabalzaren hilketaren 35. urteurrenaren bat eginez, «Non dago Mikel?» Izar Films eta Ahotsa.info-k ekoiztutako dokumentala estreinatu zen Donostiako Zinemaldian. Miguel Ángel Llamas «Pitu» eta Amaia Merino izan dira filmaren zuzendariak. Bertan azaltzen dira Mikel Zabalza Orbaizetarra 1985eko azaroan hil zuteneko gorabeherak. Filmak 80 minutuko iraupena du, euskarazko eta gaztelaniazko bertsiotan ekoiztuta dago eta Euskal Telebistaren ikus-entzunezko artxibo garrantzitsuaz baliatu da. Materiala, ikuspegi historiko garrantzitsua ematen duena, landugabe eta editatu gabe zegoen zegoen orain arte. Gainera, Zabalzarekin batera atxilotutako Ion Arretxe Errenteriako bizilagunaren testigantza eta torturari buruz egindako hausnarketak erakusten ditu. Mikelen anai-arrebek eta ilobek ere parte hartuko dute filmean, egia eta justizia aldarrikatzen jarraitzen baitute.

Dokumentalaren sinopsiaren arabera, Mikel Zabalza Intxaurrendoko Guardia Zibilak atxilotutako gazte nafarra 1985ean desagertu zen. Zabalza desagertuta egon zen 20 egunetan, gizarteak bertsiotutako ofizialarekiko zuen mesfidantzak protesta handiak eragin zituen, baita eztanda sozial bat ere, haren gorpua Bidasoa ibaiaren uretan flotatzen agertu zenean. Zabalza torturatuta hil zela uste izan arren, inoiz ez zuten inor epaitu, ezta zigortu ere. 2020ko azaroan 35 urte bete dira hil zenetik, eta bere familiak egia eskatzen jarraitzen du.

Nafarroako Gobernuak Mikel Zabalza polizia-indarkeriaren biktime izan zela onartu duen arren, gertatutakoaren bertsiotutako ofizialak bere horretan jarraitzen du gaur egun ere, Jorge Argote eta Jose Barrionuevo Barne ministroak GALek kondenatu zituen filmean islatzen den bezala.



SORTU DA HIDEA, AGOIZKO HISTORIAREN KULTUR ELKARTEA

Azken urteotan Agoizko historia aztertzen eta zabaltzen lan egin duten pertsona talde baten ekimenez, HIDEA izeneko kultur elkarte berri bat sortu da: Agoizko Historia Kultur Elkarte. Nafarroako Gobernuak estatutuak aztertu eta eskatutako baldintza guztiak bete ondoren, HIDEA elkarte Nafarroako Elkarten Erregistroan inskribatu da. Hemendik aurrera, estatutuek jasotzen duten bezala, irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarte honen helburuak Agoizko ondare historiko, artistiko eta kulturalaren ezagutza, hedapena eta defentsa sustatzea izanen dira.

Biltzar Nagusia egin arte, HIDEAren sortzaileek osatu dute Zuzendaritza Batzordea eratuko dute: Josetxo Paternain lehendakari, Juanjo Corera idazkari eta Francisca Oroz diruzain. Zuzendaritza Batzorde honen asmoa da lehenbailehen -pandemiak aukera ematen



KULTURREK AGOITZEN ERREPIKATU ZUEN

Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Kultur programak 25. edizioa ospatu zuen aurten. Nafarroako 36 herritan eta toki interesgarritan banatua, musika, dantza eta arte programazioarekin, Agoizko Kultur Etxera iritsi zen Mendillorriko Eluntze Dantza Taldeak antzeztutako «lurratik Oinetara» dantza ikuskizunarekin.

Bere hamargarren urteurrena ospatzeko prestatua, dantza eta antzerki amateurraren bidez, ikuskizun honek gure geografian murgildu gintuen dantza eta musika tradizionalak

uztartuz. Lurrak, animaliek, nekazaritzak, jaurregiak eta fabrikak auzolanean eman zioten forma lan honi, zuzeneko arteetan, eszenografia, argiztapen eta audiovisual ikusgarriekin lagunduta.

Kultur programaren helburuak honako hauek dira: Nafarroako lurraldean banatutako kalitatezko eta aniztasuneko eskaintza artistikoa sustatzea eta zabaltzea; tokiko erakundeekin artea eta kultura zabaltzen laguntzea; sektore artistikoaren ezagutza bultzatzea eta bultzatzea; eta ondare historikoa, artistikoa

badu- Batzar Orokor bat egin ahal izatea plataforma berri hori gizartearen aurkezteko, eta estatutuek eskatzen duten bezala, behin betiko Zuzendaritza Batzordea izendatzea.

Gainera, kolektibo hori abian jartzeko, dagoeneko lantzen ari diren proiektuetako batzuk aurreratu nahi dira. Besteak beste, Agoitzen zeuden ermitak fitxen eta azalpen-panelen bidez berreskuratzeko, eta interpretazio-bidezidor baten bidez batu ahal izatea.

HIDEA hiriko ondare historiko kulturala sustatu eta babesteko interesa duten guztientzat tresna baliagarria izateko asmoz sortu da, eta kultur elkarte honen filosofiarekin bat datozen kezak edo interesak dituen edonoren eskura dago. Zure posta elektronikoa, hideacultura@gmail.com

eta naturala behar bezala baloratzea, musika, dantza eta arte plastikoak jarduerak programatzeko.



AGOITZEK ONDAREARI BURUZKO EUROPAKO JARDUNALDIAK BIZI IZAN ZITUEN BERRIRO

2016an, Induriagako nekropolia bisitatze-ko ateraldia antolatu zen; 2017an, Iratiko Ibilbide Interpretatiboan barnako azalpen-ibilbidea egin zen eta El Irati, S.A.ri buruzko erakusketako bisita gidatu bat ere; 2018an, berriz, «Agoizko Istorioak» erakusketara izan zen protagonista, eta erakusketara bisita egin zen; azkenik, 2019ko programak 1479an Agoitzen izandako agramontarren eta beamontarren arteko bakearen sinadura zuen ardatz, eta dantzariak antolatutako desfilea

eta ondorengo irudikapen-dantza izan ziren Ondareari buruzko Jardunaldi ko ekitaldiak osagaiak.

2020. urte honetan, 'Hezkuntza eta Ondarea' lelopean, Bianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak udalerriek eta kultura-erakundeek antolatutako jarduera-programa zabal bat koordinatu zuen, Europako ondare komunaren inguruan (90 jarduera 43 udalerritan bi asteburutan, ahalik eta interes-

dun gehienei arreta emateko helburuarekin).

Agoitzen hiriko ondare arkitektonikoari buruzko «ibilbide birtualaz» gozatu ahal izan genuen. Javier Leachek, Ondarea Zaharberritzeko Enpresen Elkarte presidentea, Agoizko ondare historiko, arkitektoniko, arkeologiko, erlijioso, zibil, herri eta industrialari buruzko hitzaldiak eman zituen Kultur Etxean. Gure herriko kultur ondarea ezagutzeko eta gozatzeko aukera polita.



KULTUR BALANTZEA

Hilabete batzuetako eternaldi kulturalaren ondoren, Kovid19-aren osasun-krisia dela eta, irailerako eta urrirako programatutako ekitaldi guztien agenda berriro iritsi zen gure postontzietara. Gogorazi nahi dugu Agoizko Kultur Etxeak babes- eta segurtasun-neurri guztiak ezarri dituela zerbitzu eta instalazio guztietan, Kovid19-aren aurkako arriskuak ahalik eta gehien murrizteko. Edukiera murriztea eta ikusle-tarteak eta -fluxuak ezartzea, ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren garbitzea eta desinfektatzea, gel hidroalkoholikoaren banagailuak, bustitzeko eta lehertzeko alfonbrak... bertan egiten den edozein jardueratar joaten diren pertsona guztien segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Horrela, irailari hasiera eman zitzaion Nafarroako Gobernuak antolatutako Kultur jarduerarekin. Elunze Dantza Taldeak, «Lurratik Oinetara» taldearekin, agoizko auditoriuma bete zuen (osasun agintariak ezartzen duten gaitasunarekin), sartu ezin izan zuten pertsona asko bere ikusizunaz gozatzeko aukerarik gabe utziz.

DNA'20, Kultura Zuzendaritza Nagusiak - Bianako Printzea erakundeak antolatutako programa artistikoa, dantza garaikidea eta mugimenduaren arteak sustatzea helburu duena,

«Cóncavo-Convexo» lana ekarri zuen Aoizera. Diziplina anitzeko pieza honetan, musikak, dantzak eta eskulturak esku hartzen dute hutsuneaz hausnartzeko. «Denboran», DNA'20k ere programatua, parte-hartzaile bakoitzaren gaitasun, muga, memoria, desio eta bizitzako etapan egoeren unibertsoa erakutsi zuen eszenatokian, gorputzaren adierazkortasunaren bidez.

Kultur Etxeko areto handiak «Erraldoi Txikiak. 25 urte» erakusketara hartu zuen, osasun krisiaren ondorioz bertan behera geratu ziren San Isidro jaietan ospatu gabe geratu zen erakusketak. Kaskaboboren eta Maskaritaren 25. urtebetetzea ospatzeko paneletan bildutako erraldoi eta buruhandien konpartaren historiaren argazkiak, oroitzapenak eta bitxikeriak.

Antzerkia Trajin Teatroren «Mauthausen, nire aitoren ahotsa» lanarekin iritsi zen Agoitzera. Bizitza, gizakiaren sendotasunari, elkartasunari eta umoreari egindako kantu bat, bizirauteko estrategia huts gisa. Nafarroako ordezkari bakarra, herriko herritar guztiok bakarrik gozatu ahal izan genuena.

Maite Garriz, David Gutierrez, Aritz Ugalde eta Ximple-x taldeak kontzertu bana eman zuten Kultur Etxean, hilabeteari ukitu musikala jarritz.



HIZKUNTZEN EUROPAKO EGUNA



Bigarren urtez jarraian, irailaren 26an ospatzen Hizkuntzen Europako Eguna. Nafarroako Gobernuak egunarekin bat egitea erabaki zuen, eta «Eleaniztasunarekin urruti iritsiko zara» kanpaina bultzatu zuen. Helburua da hizkuntzen ezagutzari balioa ematea eta, batez ere, gazteak sentsibilizatzea hizkuntza-aniztasunari buruz, kultura-aberastasunaren elementu gisa, eta herritarrek motibatzea hainbat hizkuntza ikastera, propioak zein atzerrikoak.

Kanpaina, beste herri batzuen artean, Agoitzera iritsi zen, non stand informatibo bat jarri zen eta hitzez (etorkizuna, ametsak, hezkuntza, kultura, ondarea...) osatutako mural bat egin zen, hego batzuk osatu zituzten hizkuntza ezberdinetan. Ondoren, jendeak, batez ere gazteak, argazkiak atera eta sare sozialetan partekatu ahal izan zituzten. Kaleko ekintza horiez gain, kanpaina irati, prentsa digital, kartel eta sare sozialen bidez zabaldu zen.

Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez, bat egin zuen ekimen komun horrekin, eta herritar guztiak gonbidatu zituen hizkuntza eta kultura aniztasunaren ospakizunean parte hartzera. Hizkuntzen Europako Eguna 2001ean sortu zen Europako Batzordearen eta Europako Kontseiluaren eskutik, 47 herrialde eta 800 milioi pertsona ordezkatzeko dituztenak. Efemeridak irailaren 26an ospatzen du 200 hizkuntza propio dituen kontinente honen hizkuntza aniztasuna.



EUSKARA NORMALIZATZEKO PLANA 2020-2023 ONARTU DA

Agoizko Udalak, irailean egindako osoko bilkuran, 2020-2023 aldirako Euskararen Normalizazio Plana onartu du. Planak berrogei ekintza baino gehiago biltzen ditu, helburu nagusi hauek dituztenak: kirol eta aisialdi jardueren eskaintza zabaltzea, merkataritzaren arloan erabilera sustatzea eta Agoizko hizkuntza-

egoerari buruzko informazioa eskaintzea herritar berriei. Aldi horretan, gainera, euskarak herrian duen egoerari buruzko diagnostikoa egiten da, ezagutza eta erabilera maila ezagutu eta etorkizunean neurri zehatzagoak hartu ahal izateko.

"KIROL ERREZETA" ITZULI DA

COVID-19ren osasun-krisiak eragindako geldialdiaren ondoren, berriro martxan jarri da «Kirol-errezeta» programa espezifikoa, patologia zehatzak dituzten pertsonen zuzendua dagoena eta Agoizko osasun etxeak, Kanpandoa kirolguneak eta Agoizko Udalak sortutakoa.

Etapa berri honetan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan espezializatutako langileek (IN-EF ere esaten zaio) jarraipena egiten dute eta Kanpandoa joaten diren pertsonen egin beharreko jardueraz arduratuko dira.

Gogoan izan proiektu honen bidez osasun etxeako osasun-langileek beren paziente



kronikoentzat agintzen dutela, errezeta farmakologiko tradizionalaz gain, jarduera fisiko espezifikoa, «Kirol-errezeta» baten bidez. Horrela, Kanpandoa kirol-instalazioetara joan daitezke dagokien kirol-programan sartzeko.

Ekimen honen helburuen artean daude Agoizko biztanleentzako ohitura osasungarriak sustatzea, gaixotasun kronikoak tratatzeko estrategia gisa, ariketa fisikoko eta osasuneko programetako atxikidura areagotzea, udal-baliabideak eskaintzea eta osasun publikoko sarearekin lotzea.

Informazio gehiago Agoizko Kanpandoa kirolgunean eta Osasun Etxean eskura daiteke.

AGOITZEK ERREMONTEAREN ETAPA BERRI BAT IREKI DU

Agoizko Toki Eder pilotalekuan Iruñeko Alde Zaharreko VI. Erremonte Txapelketaren estreinaldia izan zen. Hitzordua oso berezia izan zen, e-REMORTE Beti Euskal Jai enpresa berrriaren estreinaldia izan baitzen, eta, gainera, Covid-19k markatutako normaltasun berria bezalako testuinguru berezi batean gertatu zen.

Azpimarratzekoa da Agoizko ikusleria paregabearen eta antolakuntzaren arteko sintonia ona (Agoizko Udala, Erremonte Eskola, Erremonte Fundazioa eta e-Beti Euskal Jai erremontea).

Txapelketa, Lehen zein Bigarren Mailakoa, lau bikoteren artean jokaturako ligaxka bat izan

zen, ostiral eta larunbatetan jokatu zena, uztailearen 11arte. Partidetan bildutako diru

guztia Nafarroako Haur minbizidunei Laguntzeko Elkartera (ADANO) bideratu zen.



FORU KOMUNITATEKO XV. ERREMONTE TXAPELKETA

Azabuztu azken asteburuan, Agoizko Toki Eder pilotalekuan, Nafarroako Foru Komunitatearen

arteko 2020ko Erremonte Txapelketaren XV. edizioa ospatu zen, Euskal Jai Berri Erremonte

Fundazioak antolatuta. Ekainean eta uztailean jokaturako Alde Zaharreko Txapelketaren ondoren, e-Remonte-ko pilotariek jokaturako duten bigarren txapelketa izan zen.



Nafarroako Foru Komunitateko Txapelketa, izenak azaltzen duen bezala, Nafarroako zeinbait herritan jokatu zen: Lekunberri, Doneztebe, Uhartarakil, Arbizu eta Gares eta Tafallan. Finala, berriz, Zubirin jokatu zen urriaren 10ean.


Bost bikotek parte hartu zuten: Zeberio II-Garces, Aldabe-Ion, Uterga-Otano, Matxin III-Azpiroz eta Ezkurra II-Barricart. Aldabek eta Barricartek Promozio Zazpikaleak irabazi zituzten, Otanorekin batera. Aldabe-Ionek Ezkurra II-Barricart gainditu zuten (35-30) final handian.

Alde zaharreko Txapelketaren kasuan bezala, txapelketa osoan bildutako diru guztia Nafarroako Haur minbizidunei Laguntzeko Elkarterari (Adano) eman zitzaion.

"INDURÁIN" ETA "EMAKUMEEN NAFARROAKO KLASIKOA" LASTERKETEK AGOITZ IGARO ZUTEN

Aurten, 25 urte dira Miguel Indurainen bosgarren Tourrean parte hartu zuela. Data horrekin bat eginez, pasa den uztailearen 18an Agoitzera hurbildu zen bere izena daraman zikloturista martxaren 29. Edizioa. Pandemiaren ondorioz segurtasun protokolo zorrotza betetzeari begira, antolakuntzak 1.000 parte-hartzailetara mugatu zuen gehieneko izen emate kopurua (aurreko edizioetan 2.000 zikloturista baino gehiago izaten ziren).

Jende asko atera zen lasterketa ikustera, gartxuki animatzen zuena, gainera. Publikoak,



hiriko kaleak zeharkatzen zuen pelotoiaren artean, izen handiko txirrindulariak ikusi ahal izan zituen, Miguel Indurain, Martin Fiz eta Perico Delgado, besteak beste.

Hil bereko 24an, UCI (Nazioarteko Txirrindularitza Batasuna) munduko egutegian agertzen den «Nafarroako Emakumeak» klasikoa izan zen. Bertan, oraingo nazioarteko txirrindulari onenetako batzuek parte hartu zuten. Olaberriko harresia igo zuten eta 122 kilometro zituen etaparekin (Iruñean hasi eta Iruñean amaitu zen) jarraitu zuten.